

Arraindegian

Entzungai motz bat duzu. Entzun ondoren, esan **EGIA** ala **GEZURRA** diren ideia hauek.

- Arraindegian ez dago kokotxarik.

EGIA GEZURRA

- Arraindegietan haragia erosten da.

EGIA GEZURRA

- Bezeroak legatza nahi du.

EGIA GEZURRA

- Bezeroak legatza buru eta guzti nahi du.

EGIA GEZURRA

- Bezeroa ordu bete barru joango da arrain bila.

EGIA GEZURRA

Transkripzioa

Gizona: Egunon, Inazio Arrandegia, zer nahi duzu?

Andrea: Kaixo, egunon, begira Amaia naiz. Ez dakit gogoratzen zaren, hemen Antiguakoa.

G: Ez zaitut ezagutuko! Horixe! Segi segi.

A: Ba begira, afari bat daukagu soziedadean eta ez dakit legatza-edo nahi nuke enkargatu.

G: Bai bai, eder askoak dauzkagu, gaur goizean Ondarrutik ekarritakoak.

A: A primeran. Begira, ez dakit, pare bat legatz eta kokotxak kilo eta erdi edo. Izango dituzu?

G: Bai bai, badauzkagu bai. Legatzak zer nahi dituzu garbiak edo?

A: bai bueno burua kenduta eta bere horretan.

G: Bere horretan, bueno ba. Zein ordutan etorriko zara?

A: Noiz arte daukazue irekita?

G: Ordu bi eta erdiak arte, orain udaran.

A: Bueno eguerdi partean, ordu batak alde horretan edo pasatuko naiz.

G: Bueno ba ongi da, gero arte orduan.

A: Eskerrik asko eh, agur.

A: Bai, adio.

Erantzunak:

Gezurra / Gezurra / Egia / Gezurra / Gezurra